

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERROETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Zur aprobetxamenduko lotea esleitzeko lizitazioa

2020ko ekainaren 25eko Kontzeju Irekiaren bilkuran balio osoz hartutako erabakiarekin bat etorritik, iragarki honen bidez lizitaziorako deialdia egiten da onura publikoko mendi katalogatuan (550 zk.) ondoren zehazten den zur-aprobetxamendua esleitzeko, datu hauen arabera:

I- Erakunde esleitzaila. Datu orokorrak eta argibideak eskuratzeko datuak.

a) Erakundea: Erroetako Administrazio Batzarra.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko:

1. Bulegoa: Erroetako Administrazio Batzarra.

2. Helbidea: San Juan kalea, 8.

3. Herria eta posta kodea: 01129 Erroeta.

4. Telefono zenbakia: 650 480 529

5. Posta elektronikoa: mugicaforondalucas@gmail.com.

6. Agiriak eta argibideak eskuratzeko eta eskaintzak aurkezteko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken eguna.

II- Kontratuaren xedea.

a) Mota: salerosketa.

b) Zedearen azalpena: 550 zenbakidun OPMan zur aprobetxamendua besterentzea, behean ageri den taulan zehaztua.

TITULARRA	DERMIOA 550. Z. OPM	ESPEZIEA	KUBIKAZIOA	MOZTEKO MODUA	PARTZUERGOA AFA-REKIN
ERROETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	GOIKOBASO	PAGOA (<i>FAGUS SYLVATICA</i>)	659,775 metro kubo, azal eta guzti	Arriskua bere gain	EZ

Aprobetxamendua espezie hauena da: *Fagus sylvatica*.

c) Lotetan banatzea eta lote kopurua: ez.

III- Izapidetzea eta prozedura:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia, eta esleitzeko irizpide bakarra, eskaintza ekonomikorik onena.

IV- Kontratuaren zenbatekoa:

a) Zenbatekoa, guztira: 15.174,83 euro, zergak sartu gabe.

V- Kontratistaren berriazko betekizunak.

a) Ekonomia eta finantza kaudimena eta kaudimen tekniko-profesionala: administrazio klausula berezien pleguko bederatzigarren klausulan jasotzen dena.

VI- Eskaintzak aurkeztea.

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrerako 15. egun naturala.

b) Eskaintzak aurkezteko lekua:

1. Bulegoa: Arraia-Maeztuko udal bulegoetan.

2. Helbidea: Estación kalea, 13.

3. Herria eta posta kodea: Maeztu, 01120.

VII- Eskaintzak irekitzea.

a) Helbidea: Erroetako Administrazio Batzarra.

b) Herria eta posta kodea: Erroeta, 01129.

c) Eguna: eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta 7. egun balioduna.

Erroeta, 2020ko uztailaren 9a

Errejidore-lehendakaria
LUCAS MÚGICA FORONDA